

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

2376

AGINDUA, 2026ko maiatzaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bitartez onartu egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionarioen hainbat kidegotako, autonomia mailako, lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena, Euskal Autonomia Erkidegoko kidego hauei dagokiena: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleena, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleena, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleena, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoena eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistena.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bitartez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionarioen hainbat kidegotako, autonomia mailako, 2025-2026 lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena, Euskal Autonomia Erkidegoko kidego hauei dagokiena: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleena, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleena, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleena, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoena eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialistena.

Ebazpen horren kontra aurkeztu diren erreklamazioak aztertu dira, eta onartu diren uko-egiteak sartu dira. Halaber, behin-behineko esleipenaren ondoren sartu egin dira behin betiko merituen baremoan egon diren aldaketak, aurkeztu diren hainbat gora jotzeko errekurso onartu izanagatik. Azkenik, akatsak zuzendu dira behin betiko onartutakoaren zerrendan merezimenduen baremoarekin.

Beraz, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko azaroaren 13ko Aginduaren bidez (2025eko abenduaren 17ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako funtzionarioen arteko autonomia mailako Lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen. Bada, agindu horren hogeita zortzigarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionarioen hainbat kidegotako lekualdatze-lehiaketako behin betiko esleipena, Euskal Autonomia Erkidegoko kidego hauei dagokiena: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleena, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleena, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleena, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoena eta LHko sektore berezietako irakasle espezialistena. Zerrendak:

I. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan destinoa esleitu zaien parte-hartzaileen zerrenda, Euskal Autonomia Erkidegoko kidego hauetan: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleena, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleena, Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedradun eta Irakasleena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleena, desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoena eta LHko sektore berezietako irakasle espezialistena.

Bigarrena.– Agintzea aurreko eranskinak erakusgai jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> webgunean eta <https://hezigunea.euskadi.eus> helbidean, agindu hau EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera. Halaber, leku berberetan erakusgai jarriko dira uko-egiteen eta baietsitako, ezetsitako eta partzialki baietsitako erreklamazioen zerrenda alfabetikoa, arrazoia zehaztuta eta baietsitako edo partzialki baietsitako gora jotzeko errekurtsioen zerrenda, atal bakoitzean egindako aldaketa adierazita.

Hirugarrena.– Izendapenek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango dituzte 2026ko irailaren 1etik aurrera; eta jatorrizko ikastetxeetako kargu-uzteek, ordea, 2026ko abuztuaren 31tik aurrera.

Laugarrena.– Indargabeturik geratuko dira lekualdatze-lehiaketaren deialdi honetan parte hartzeko betekizunak betetzen ez dituzten irakasleei akats baten ondorioz esleitutako destinoak. Agindu honen eranskinetan agertu arren eta are lanpostuez jabetu arren, ez da aurretiaz pentsatu behar deialdiaren betekizunak betetzen direnik.

Bosgarrena.– Eszedentzian dauden eta lehiaketaren ondorioz zerbitzu aktibora itzultzen diren irakasleek 2026ko irailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dute honako dokumentazio hau: Lekualdatze-lehiaketaren deialdiari buruzko 2025eko azaroaren 13ko Aginduaren hogeita hamarren oinarrian aipatzen dena (2025eko abenduaren 17ko EHAA).

Seigarrena.– Agindu honen bosgarren xedapenak aipatzen dituen itzuli diren pertsonen zein aurtengo lekualdatze-lehiaketan Euskal Autonomi Erkidegoan behin betiko destinoa lortu duten beste Autonomi Elkarteko funtzionarioek, agiri hau aurkeztu beharko dute: epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen bategatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina. Delitu horren barruan sexu-erasoak eta -gehiegikeriak, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeen usteltzea sartzen dira, baita gizakien salerosketa ere. Hala ere, ez dute aurkeztu beharko Hezkuntza Sailari espresuki baimena eman badiote aipatutako datua kontsultatzeko, elkarreragingarritasunaren sistema elektronikoen bitartez (Hezkuntzako Hezigunea atalean bere eremu mugatua erabiliz -erabiltzaile eta pasahitza-, izapide hori bete beharko du «Adingabearen babesa» atalean).

Zazpigarrena.– Agindu honetan lortutako plazei ezin zaie uko egin. Aitzitik, irakasle kidego batean baino gehiagotan parte hartu eta destino bat baino gehiago lortu badira, 2026-2027 ikasturtean jardun nahi den destinoa hautatu beharko da, hamar egun naturaleko epean, behin betiko destinoen esleipenaren agindua EHAAan argitaratzen denetik hasita. Hala egin ezean, zerbitzu aktiboan egonda parte hartu den kidegoari dagokion lanpostua hartu beharko da jabetzan. Eskararik izan ez duten lanpostuak plaza hustzat joko dira, eta hezkuntza administrazioek erabakitako araudiari jarraituz beteko dira.

Zortzigarrena.– Lekualdatze-lehiaketa horretan parte hartu duten irakasleek, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko jatorrizko dokumentazioa aurkeztu badute, lehiatu diren Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzan berreskuratu ahal izango dute dokumentazio hori, bai bertara joanda, bai baimendutako pertsona bat hara bidalita. Horretarako, agindu honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko bi hilabeteko epea bukatu egon beharko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 19a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.